

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen 2019ko uztailaren 5eko dekretua, José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa tokiko erakunde autonomoko zuzendaritza-kontseiluko lehendakaria eta lehendakariordea izendatzeari buruzkoa

José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa tokiko erakunde autonomoaren estatutuen 5. artikulua xedatzen duenaren arabera, alkatea da zuzendaritza-kontseiluko lehendakaria, eta, 8. artikulua dioenez, erabat edo zati batean kontseiluko kideren baten esku utzi ahal du kargu hori.

Bestetik, 10. artikulua ahalmena aitortzen dio alkateari kontseiluko kideen artetik lehendakariordea ere izendatzeko, lehendakaria bertan ez bada, kargua hutsik bada edo hura gaixorik bada ere hura ordezka dezan.

2019ko ekainaren 28ko aparteko bilkuran, talde politikoen ordezkariz izango diren kontseiluko kideak izendatu ditu udalbatzak, estatutuen 5. artikulua dioenarekin bat etorritik.

Horrenbestez, hauxe xedatu dut:

Lehena. Estíbaliz Canto Llorente andrea izendatzea José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa erakunde autonomoaren zuzendaritza-kontseiluko lehendakari.

Bigarrena. Livia Claudia López Gutiérrez andrea izendatzea José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa erakunde autonomoaren zuzendaritza-kontseiluko lehendakariorde.

Hirugarrena. Datoren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau; hala ere, ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 5ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE